

BEZEROEKIKO HARREMANA

Proiektu honetan bezeroekin harremana izango da eta helburua, enpresak dituen bezeroak eustea izango da. Gainontzean, bezeroak joan egingo dira eta diru gabe gelditzeko aukerak izango dira. Hala ere, bezeroek nahi dituzten produktuak ateratzen badira, dirua lortuko da eta bezeroa gustura joan dela jakinik, bezeroa mantentzea zaila ez dela izango aurreikusten da. Etorkizunerako bezeroak mantendu ahal izateko, produktuaren erosketagatik bertako produktueterako deskontu bonu bat oparituko da. Gainera hilabetero produktua edo kasu honetan jokoak erosi eta erabiltzen dituztenentzat bono bereziak egongo dira. Bono hauek hilabetean bertan erabiltzeko epea izango dute. Erositako jokoaren arabera bonoa 10 € izango da eta kasu berezi batzuetan, adibidez urtebetetzetan 15 € ko oparia egongo da aurretik jokoren bat erosi bada.